



udako
euskal
unibertsitatea

IMPRESIONISMOA (S. XIX - XX)

IRUINEA 1979

UDAKO EUSKAL UNIBERTSITATEA

IRUÑA 1979

I N P R E S I O N I S M O A (S. XIX - XX)

Prestatzaileak: - Lourdes Alkein
- Arantzezu Arzamendi
- Koro Garmendia
- Edorta Kortedi

INPRESIONISMOA (S. XIX - XX)

- . Sarrera orokor historikoa: egoera politikoa, indar ekonomikoak, gizarte klaseak, etab., Europan eta Euskal Herrian astertuz.
- . Mende hontako aurrerapenak: filosofia, literatura, tresneria, teknika, arte alorretan.
- . Inpresionismoa, pintura mogimendu bezala: pintore batzuk eta joerak, Europan eta Euskal Herrian. Ikuspegi kritikoa.

XIX MENDEA EUROPA

1 - Aldaketa ekonomikoak

1.1.- Demografia

Jendetzaren hazkundera

Migrazioak

1.2.- Energia

1.3.- Garraioak

1.4.- Industria

2 - Aldaketa sozialak

3 - Aldaketa politikoak

3.1.- Kontserbadurismoa

3.2.- Liberalismoa

3.3.- Nazionalismoa

4 - Bibliografia

PRESTATZAILE: Arzamendi Lurdes

XIX MENDEA EUROPAN

XIX mendean Europa osoak aldaketa haundiak ezagutu zituen bai ekonomian, politikan, gizartean eta kultura mailan

1.- Aldaketa ekonomikoak

Aldaketa hauen oinarria Iraultza Industrialak izan zen. 1750 urtean jaio zen Ingalaterran eta handik Europa eta Ameriketara zabaldu zen. Aldaketa hauek lau arlotan aztertuko ditugu:

- demografia
- energia
- garraioak
- industria

1.1.- Demografia

Demografian bi puntu aztertuko ditugu. Bata, jendetza-
ren hazkundera, eta bestea migrazioak.

Jendetza-
ren hazkundera hiru arrazoi hauengatik gertatu zen: Elikadura hobetzea, garbitasun handiagoa, medikuntza mailan txertoak sortzen dira.

Ondorioz heriotzak asko gutxitu ziren, eta nahiz eta jaiotzak berdintzen jarraitu, demografiak hazkundera ikaragarria ezagutu zuen.

Argibide bezala datu hauek ditugu:

Ingalaterran: 1801:	10.686.000	biztanle
	1841:	18.555.000 "
	1881:	29.789.000 "
	1901:	37.093.000 "

Populazioaren hazkunderaren ondorio bezala migrazioak ditugu, eta hauek bi eratakoak izango dira:

- nekazal herrietatik industri herrietara
- Europatik Ameriketara.

1.2.- Energia

Energiatarako aurrerapenik haundienak ikatzak, elektrizitateak eta petrolioak ekarriko dituzte.

Ikatza energi iturri haundi bat da. Beraz, industri haundienak ikatz meatzen inguruan azalduko dira.

Elektrizitatea beste energi iturri bat dugu, eta pixkanaka pixkanaka ikatzaren ordezt erabiliko dena.

Petrolioaren garrantzia ere oso haundia izango da.

1.3.- Garraioak

Lurrin makinaren aplikazioak aurrerapen haundiak ekarri zituen. Adibide bezala itsasontziak eta trenak ditugu. Honela joan etorriak oso arindu ziren.

1.4.- Industria

XIX. mendean ehungintzarekin batera metal eta kimika industriak asko indartu ziren. Metalurgia mailan lurrin makinaren aurrerapenak eta tresneriaren zabalkundeak aipatu behar ditugu. Kimikari dagokionez, azidoen emanketak hazkunde haundia ezagutu zuen eta baita ongarrienak ere.

2.- Aldaketa sozialak

Errejimen Zaharra erori ondoren, aldaketa sozial haundi bat ezagutuko dugu. Orain arte gizartea estamentuz zatitzen zen, orain berriz gizarte klasista batera pasatuko gara eta klase zatiketa hau diruaren arauera egingo da.

Gizartea aztertzeko hiru maila bereiziko ditugu:

- noblezia zaharra eta apezzeria
- burgesia
- nekazalgora eta langileria

Burgesia indartzen ari den neurrian, nobleziak bere pribilejioak galduko ditu. Burgesia osoa ez zen berdina. Gailurrean goiko burgesia dugu. Batzuk jaiotzez burgesak ziren, eta beste batzuk jaiotzez behartsuak ziren eta gero aberastu ziren.

Gehienak industrialak, bankeroak eta armadoreak ziren eta badirudi XVIII. mendeko aristokratek baino indar haundiagoa zutela.

Goi burgesiaren hazkunde hau Iraultza Industrialarekin loturik dago.

Nekazalga eta langileari: lehen esandakoaren arauera, nekazariak herri txikietatik hiri haundietara aldatu ziren eta lantegietan hasi ziren lanean. Honela proletalgaia sortu zen. Proletalgoaren egoera ez zen inolaz ere atsegina. Kondizio txarretan lan egiten zuten eta gero soldata txikiak jasotzen zituzten. Egoera honetan, beren eskubideak defenditu behar zituztela ikusi zuten eta sindikatoak sortu zituzten. Hasieran, sindikato hauek bi helburu nagusi zituzten:

-lan ordu gutxiago

-soldata haundiagoa

Helburu hauek lortzeko grebak antolatu zituzten. Sindikato hauek Ingalaterran jaio ziren "Trade Unions" izenarekin eta 1876. urtean legez onartuak izan ziren.

3.- Aldaketa politikoak

3.1.- Kontserbadurismoa

1.814. urtean Napoleon lur jota geratu zenean, Europa osoa Erregimen Zaharrera itzuli zen. Alejandro I (Rusiako zar-a), Prusiako erregea eta Mëtternich, Alemaniako kanzi-llerra Vienan elkartu ziren eta "Santa Alianza" delako tratatua izenpetu zuten. Tratatu hau zela eta, beharrezko gertatzen zenean elkarri laguntza ematea erabaki zuten. Handik denbora gutxira Ingalaterrak ere izenpetu zuen tratatu hau eta "Cuadruple Alianza" izena hartu zuen.

Kontserbadurismoaren oinarriak noblezian, apez-
rian eta goiko burgesian ditugu. Erregetza, familia,
jabego pribatua eta pribilegioak defendatzen ditu.

Ordezkarri bezala Burke, Chateaubriand eta Muller
aipatuko ditugu.

3. 2- Liberalismoa

Rousseau-rengan eta Ilustrazioa oinarritzen zen.
Liberalismoaren ideologia lau puntu hauetan labur de-
zakegu:

1- Gizabanakoaren askatasuna: erlijio, pentsamen-
du, eta komunikabideetako askatasuna.

2- Estatu konstituzionala

3- Hiritarren partizipazioa politika alorrean:
beren ordezkariak parlamentura bidali eta gobernuaren
ekintza kontrolatzeko eskubidea.

4- Ekonomi askatasuna, bai produkzioan, lantegie-
tan, sindikatoetan eta abarretan.

XIX. mendearen erdi aldean, liberalismoa Inglate-
rran ezarri zen, eta bere ordezkari inportanteenak
hauek izan ziren: Benthan, Stuart Mill eta Spencer.

Liberalismoa Europa osora zabaldu zen, eta bi ko-
rronte nagusi ezagutzen ditugu: moderatuak eta radikalak.

1.830.urteko iraultza liberal moderatuen eskuetan
egon zen. Luis XVIII garrena hil zenean, Orleans-eko
Luis Felipek, liberalen kandidatuak, hartu zuen erregetza.
Belgika, Holandaren menpean zegoen eta momentu hontan bere
independentzia lortu zuen. Beste alde, Poloniak ez zuen
bere askatasuna irabazi eta Rusiaren menpean jarraitu
zuen.

Bigarren iraultza 1.848-koa dugu. Historilari batzuek diotenez, iraultza honen arrazoia 1.845.urteko uzta txarra izan zen.

Frantziako erregeak alde egin behar izan zuen, eta Errepublika jaio berriak boto orokorra finkatu zuen.

Italia, Alemania eta Austriak ere monarkia konstituzionalak azagutu zituzten. Honela, XIX. mendean, Rusia bakarrik jarraitzen du Erregimen Zaharrean. Une hontan, Alemania eta Italiaren batasuna lortu ziren.

3.3 Nazionalismoa

Herria eta herriaren ezaugarriak goraipatzen dituzte: geografia, etnografia, linguistika, erlijioa... Aldi berean herri hauek asakatasuna lortzeko eskubidea defenditzen dute.

4.- BIBLIOGRAFIA

FERNANDEZ, LLORENS, ORTEGA, ROIG: Historia contemporánea,
Vicens Vives,

NIVEAU, Historia de los hechos económicos contemporáneos,
Ed. Ariel, Barcelona, 1974

SAIZARBITORIA, SARASOLA, URRETAVIZCAYA: Mendebaleko
Ekonomiaren Historia. Merkantilismotik 1914era
arte, Lur, Donostia, 1970

VIAL: Nacimiento y desarrollo de la civilización industrial,
P.U.F., Madrid, 1976

VICENS VIVES: Historia General Moderna, Ed. Montaner y Simon,
Barcelona, 1974

EUSKAL HERRIA XIX MENEAN

- 1.- Demografia
 - 1.1- Populazioaren hazkundera eta lekualdaketa
 - 1.2- Euskal Herria
- 2.- Karlistadak
 - 2.1- Sarrera
 - 2.2- Lehen Karlista gerratea
 - 2.3- Bigarren Karlista gerratea
- 3.- Ekonomia. Industrializazioa
 - 3.1- Baldintzak
 - 3.2- Bizkaia
 - 3.3- Siderurgia
 - Banka eta finantzak
 - Untzigintza
 - 3.3- Gipuzkoa
 - paper fabrikak
 - Ehungintza
 - Banka
- 4.- Langile mugimenduak
 - 4.1- Sozialismoa
 - 4.2- Anarkismoa
- 5.- Bibliografia

PRESTATZAILE: Alkain Lurdes.

1 - DEMOGRAFIA

1.1.- Populazioaren hazkundera eta lekualdaketa

XIX. mendeko aurrerabideak populazioaren hazkuntza zuten Europa osoan, eta espainiar penintsulako jendetza ere asko gehitu zen. Argibide bezala datu hauek ditugu:

1799: Espainiako populazioa 10.500.000 bizilagunek
osatzen zuten
1822: 11.600.000 bizilagun
1900: 18.600.000 "

Baina hazkundera hau ez zen berdina izan eskualde guztietan. Itsas ertz edo periferiako eskualdeek hazkundera handia ezagutu zuten arren, erdialdean populazioa asko galdu zen. Hemen salbuespen bat aipatu behar dugu, eta hau Madrid izan zen.

Populazioaren lekualdaketa bi eratakoa izan zen:

- herrixketatik hiri nagusietara: Penintsula barruan
- Penintsulatik Ameriketara

Penintsula barruan nekazariak beren herrixketatik hiri nagusietara aldatu ziren. Joan etorri hauek trenbidearen eraiketarekin oso loturik daude.

Bestalde, XIX. mendearen bukaeran, jende asko Ameriketara joan zen. Honela 1822tik-1914-ra, 1.000.000 bizilagun Argentina, Brasil eta Cuba aldera atzerriratu ziren.

1.2.- Euskal Herria

Bizkaia: Bizkaia hazkundera ikaragarria ezagutu zuen. Argibide bezala datu hauek ditugu.

Bilbo: 1877: 33.000 bizilagun
1887: 51.000 "
1900: 83.000 "
1910: 90.000 "

Bizkaia: 1877: 190.000 "
1900: 310.000 "
1910: 350.000 "

Larrondek (I) bi ezaugarri aipatzen ditu:

1) 1880-1900-ra: Penintsula osoan hazkunde haundiena eza-
gutu zuen eskualdea, Bizkaia izan zen

Bizkaia: % 48

Bartzelona: % 24

Madrid: % 21

2) Bizkaia barruan, industria eta meatzak zeuden
lekuetan haundiagoa izan zen hazkundea

Gipuzkoa, Nafarroa eta Araba: Hazkundea ez zen
Bizkaian bezain handia izan, hemen XIX mendean ez bait
zen industriarik. 1900 Gipuzkoak 195.000 biztanle zituen.
Arabak 95.000 eta Nafarroak 305.000

2.- KARLISTADAK

2.1.- Sarrera

Historia aztertzen hasiz gero, Euskal Herriaren aur-
kako ekinaldiak Borbondarrekin hasi zirela ikusiko dugu.
Adibidez, matxinadak (1718), eta Zamakolada (1804)

Gero, XIX mendean, Madrilgo gobernuak Euskal Herriko
Foru Errejimena ezabatzea erabaki zuen eta neurri hauek
hartu zituen:

-1815: Junta de Reforma de Abusos de la Real Hacienda en
las Provincias Vascas.

-1817: Jueces de registro y contrabando.

-1817: Junta de Jueces contra las Diputaciones permanentes.

-1820: 1812-ko Konstituzioaren ezarpena.

(I) LARRONDE: "Origenes del nacionalismo vasco: Sabino
Arana Goiri" in Historia del Pueblo Vasco 3

Foralismoaren aurkako eraso hontan Euskal Herriari irtenbide bakar bat eskaini zitzaion: Errejimen Zaharrena itzultzea eta karlisten alde azaltzea. Beraz, gure asabei, Isabel eta Karlosen erregetza ez zitzaaien batere axola, baina bere herriaren askatasuna zalantzan ikusi zuten, eta Foruak defenditu behar zirenez gero, gerran parte hartzea erabaki zuten.

2.2.- Lehen karlista gerratea

Euskal Herrian, eta buruzagi bezala, Zumalakarregi agertzen zaigu. Hemen aipatu behar dugu Euskal Herri barruan gertatu zen zatiketa: alde batetik hiri txikiak ditugu, eta hauek karlismoaren alde azalduko zaizkigu; eta bestetik, hiri nagusiak, liberalen alde.

Madrilgo gobernuak, liberala izanik, foruen aurka jokatu zuen. Honela, 1836-an, Diputazio Foralak deuseztu ziren, eta 1837an aduanak Pirineo mugan ezarri ziren, eta justizia mailan administrazio zentrala.

Gerrate hau, 1839.an, Bergarako akordioa izenpetu zenean, amaitu zen. Esparterok gure foruak errespetatuko zituela agindu zuen, baina ez zuen bere agindua bete. Handik bi urtetara, hau da, 1841ean, foru-pasabidea edo "pase foral" zeritzan eskubidea kentzen zuen agindu bat eman zuen. Aitzaki bezala, foru pasabide hau espainiar monarkiaren batasunaren aurkako zela zioen Esparterok.

2.3.- Bigarren karlista gerratea (1872-1876)

Epe honetan, Estatu Karlista eratzen da, instituzio foralak errespetatzen zituen bizimodu bat taxutuz.

Baina 1876-ko uztailearen 21ean eman zen legearen

bitartez Foruak galdu genituen. Hemendik aurrera, euskaldun gazteak espainiar harmadan soldadutza egitera behartuak izango dira eta, Euskal herrialdeak zergak ordaindu beharko dizkiote Espainiako estatuari.

3.- EKONOMIA

3.1.- Baldintzak

XIX. mendean eta Penintsula barruan, industrializazioa indartzen hasi zen. Alde batetik, ehungintza Bartzelonan, eta bestetik siderurgia Bilbon.

Industrializazio prozesu bat aurrera ateratzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- Lehenengoz lanerako gaia edo materiala behar dugu
- Tresna egokiak, eta tresneria hori ongi erabiliko duen jende espezializatua.
- Merkatu bat gauzak saltzeko.
- Inbertzio handiak industria zabaltzeko.

Baldintza hauek betetzen al ziren Euskal Herrian? Orain ikusiko dugu.

Gure artean materiala edo gaia oso ugaria izan da. Adibidez, Bizkaian burdin meatzak edo egurra.

Teknika aldetik ere Euskal Herria oso aurreratua ibili da. Alde batetik burdinolek tradizio handia izan dute, eta bestetik XVIII. mendean, Bergarako Seminarioan ikerketa lan sakonak egin ziren

Merkatua ere nahiko zabala zen Ameriketako portuei esker, eta beraz, euskaldunek nahiko diru pilatu zuten industrietan momenturako.

Baina Euskal Herrian Foruei esker, lur azpian zeuden ondasunak, hau da, meatzak, basoak, etab... herri osoarenak ziren eta ezin ziren esportatu. Hau eragozpen ikaragarria izan zen industrializaziorako. Lehen karlistadaren ondoren,

1841ean, estatu osoan espainiar legea ezarri zen, esportazioarako traba guztiak kenduz.

3.2.- Bizkaia

Siderurgia

Lehen aipatu dudan lege horren arabera, 1841-etik aurrera, Euskal Herriak berbizkunde ekonomikoa ezagutu zuen. Argibide bezala datu hauek ditugu:

- 1841: Boluetako Santa Ana lantegian, lehenengo labe handia ipini zen.
- 1857: Bilboko Banketxea sortu zen.
- 1867: Mineral ekarrieramanetarako Triano burdinbidea martxan ipini zen.
- 1874: Orconera Iron Ore enpresa lanean hasi zen. Hasieran 30.milioieko dirutza zuen.

1876an, foruak behin betirako galduz gero, industrializazio prozesuak indar handia hartu zuen.

- 1876: Mineral esplotazioak berebiziko bultzada ezagutzen du Somorrostron, batez ere, Societé Franco-Belga deritzanak inbertitzen duen kapitalagatik.

Siderurgiarekin batera garraioek ere aurrera jo zuten.

- 1855: Madriletik Pariserako trenbidea martxan ipintzen da.
- 1862: Mirandatik Bilborakoa.

Ondorio bezala hau esan dezakegu: karlistadetan garaile irten zen burgesia liberalak, foruak deuseztu ondoren, industrializazioarako inguru giroa prestatu zuela, konzierto ekonomikoei eta neurri babesleiei esker.

Banka eta finantzak

Industriarekin batera banketxeak azaldu ziren.

Datu hauek ditugu:

- 1857: Bilboko Banketxea sortu zen.

1901: Bizkaiko Banketxea.

1890: Bolsa de Bilbao deritzana, Bartzelonakoa baino
35 urte lehenago.

Untzigintza

Bizkaiaren industrializazioa untzigintzarekin lotuta dago. Honela, 1900an, estatu osoko itsas trafikoaren % 40 Bilbo inguruan biltzen zen.

-1888: "Astilleros del Nervion" zeritzan enpresa erai-
ki zen.

-1901: "Compañía Euzkalduna de Construcción y Reparación
de Buques" zeritzana, Sota eta Aznar-en gidaritzapean.

3.3.- Gipuzkoa

Gipuzkoako industrializazioa aztertzeko Montserrat Garate-ri jarraituko diogu (1).

M. Garatek dioenez, Donostia inguruko merkatari edo salerosleek egin zuten dirutzarekin sortu zen Gipuzkoako industri desarroiloa. Hasierako industrializazio hau ez zen Eibar, Elgoibar, Soraluze inguruan sortu, nahiz eta garai batean inguru honetako industriak indar haundia izan.

Gipuzkoa eta Bizkaia konparatzen baditugu, Gipuzkoako industrializazioa txikiagoa izan zela, ikusiko dugu.

Paper fabrikak

Bizkaian bezala, Gipuzkoan ere, 1849. urte inguruan aurkituko ditugu industrializazioaren hastapenak. Datu hauek ditugu:

-1842: "La Esperanza" zeritzan lantegia.

-1858: "La Providencia" zeritzana.

Beste batzu ere azaldu ziren. Honela ditugu: "Sota, Tudor y Cía", eta "Sese, Bandres y Echevarria".

(1) M. GARATE: "Desarrollo industrial del País Vasco:

Guipuzcoa" in Historia del Pueblo Vasco, 3

1860. urte inguruan, trenbideak martxan jarri zirenean, paper fabrikak indar handia hartu zuten.

Ehungintza

Ehungintzari buruz datu hauek ditugu:

-1845: Brunet familiak, Oriako algodoi fabrika eraiki zuen.

-Bergaran beste bi lantegi ditugu:-"Pedro Lasagabaster"

- "Fernández Sobrino"

-Andoainen: "La Algodonera guipuzcoana" zeritzana.

Banka

Industria indartzean banketxeak azaldu ziren. M. Garatek dioenez Ameriketatik iritsi zen dirutzak zerikusi handia izan zuen banketxeen sorreran.

Honela banketxe txiki asko sortu ziren. Gaur egun, eta pixkanaka-pixkanaka beste banketxe handiak hasierako hauek irentsi egin dituzte.

Argibide bezala datu hauek ditugu:

-1862: Donostiako Banketxea.

-1878: Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala

-1899: Gipuzkoako Banketxea.

-1911: Tolosako Banketxea.

-1916: "Banco de Barcaiztegui y Maestre" zeritzana.

-1920: "Banco de Soler y Torra hermanos" eta Irungo Banketxea.

4.- LANGILE MUGIMENDUAK

Industriaren indarberriatzearen ondorio bezala, atzerritar langile asko etorri zen Euskal Herrira. Bertako langileek etsai bezala ikusten zituzten kanpokoak. Baina nagusiek nahiago zituzten atzerritik etorriak, emendio ona egiten bait zieten aloger txikiagoz. Ondorioz, euskaldun asko Ameriketara edo beste lekuetara joan ziren.

Adibide bezala datu hau dugu: 1910.ean, Bizkaiko meatzetan ari ziren 13.000 lagileetatik 3.000 ziren euskaldunak.

Gipuzkoan ez zen gauza berdina gertatzen, hemen lantegiak txikiagoak bait ziren, eta inmigrazioa askoz ere urriagoa.

4.1.- Sozialismoa

1879an, Madrilen PSOE sortu zen, eta laster zabaldu zen Bizkaira. Honela, 1890ean, Bigarren Kongreso Nazionala Bilbon ospatu zen. Urte hontarako baziren Bizkaian 46 talde sozialista. 1894ean, aldizkari bat atera zuten, "La lucha de clases" zeritzana.

Organizazio mailan asko indartu ziren, eta Tomas Meaberi esker, Estatuko Gazteria Sozialistaren lehenengo egoitza Bilbokoa zen.

Hauteskundeetan ere indartuz joan ziren, honela, 1896-1905ra, Pablo Iglesias-ek resultado onak atera zituen Bilbo aldean. Bilboko Udaletxean minoria bat eratu zuten, eragin haundikoa, nahiz eta gauza haundirik ez lortu.

1890-1903ra greba haundiak egin zituzten. Eskaerak hauek izan ziren: kantinetatik kanpo bazkaltzea eta kapatazaren barrakoietatik kanpo lo egitea. Baita lan eguna hamar ordutara jaistea ere.

Bi gauza lortu zituzten:

-nahi zuten tokian lo egiteko eskubidea

-udaran hamaika ordutako lan eguna, eta neguan, bederatzi ordutakoa.

Gipuzkoa, lehen esan dugun bezala, oso berandu industria-
lizatu zen, beraz langileria ere atzeratua zegoen. Sozialis-
moa Eibarren sustraitu zen, gero Pasaian, Erreterian eta
Tolosan.

Nafarroan, batez ere Herribera aldean eta baserritarren artean sartu zen sozialismoa.

4.2.- Anarkismoa

Anarkismoa izan zen, Euskal Herrian errotu zen lehen langile erakundea, baina ez zuen sozialismoak bezain indar haundia lortu. Bilbo inguruan, zazpi talde zituen eta bi aldizkari: "Nuevo Espartaco" eta "El ideal de esclavo".

5.- BIBLIOGRAFIA

- BARAIAZARRA, L: Euskal Herriaren Historia, 2, Gero, Kimu Saila, Donostia, 1977
- BELTZA: El Nacionalismo vasco 1876-1936, Txertoa, San Sebastián, 1976
- CABALLERO, Carlos: Introducción a la Historia de Euskal Herria, Escuelas Profesionales "Jesús Obrero", Vitoria, 1973
- GARATE, Montserrat: "Desarrollo industrial del País Vasco: Guipuzcoa" in Historia del Pueblo Vasco, 3, Erein, San Sebastián, 1979
- LARRONDE, Jean Claude: "Orígenes del nacionalismo vasco: Sabino Arana Goiri" in Historia del Pueblo Vasco, 3, Erein, San Sebastián, 1979
- ORELLA, Jose Luis: "Problemática y actualidad de las guerras carlistas" in Cultura Vasca I, Erein, San Sebastián, 1977
- UGALDE, Martin: Síntesis de la Historia del País Vasco, Ed. Seminarios y Ediciones, S.A., Madrid, 1974
- UGALDE, Nikel: Langileria Historian zehar, Etor, Donostia, 1971
- ZABALA, Federico: Euskal Herriko historiaren laburpena, Donostia, 1971

INPRESIONISMOA. XIX-XX

1. Sarrera
2. Erromantizismotik Inpresionismora.
3. Inpresionismoa zer den
4. Historia
5. Bibliografia.

PRESTATZAILE: Garmendia Koro.

1.- Sarrera 1.848.go iraultzarekin izakera eta bizi modu baten amaia datorkigu. Mundu berri baten ateak irekiko dituen energia aldaketak, gizarte berri bat martxan jartzen du. Era berean filosofia eta pentsamentu munduan aldaketa biziak ematen dira.

Artea ikuslego berri batekin aurkitzen da, burjesi txikia eta erdikoa. Ikuslego honentzako, artea mundu berri bat da, ez dute inongo ohiturarik artea ikusteko baina mundu hori ezagutu nahi dute.

Aurrerakuntza, doktrina eta gizarte honen ardatza bezela agertzen da; etengabeko mogimenduen eta etorkizunari begira dagoen gizarte dugu hau, lehengo gizarteak berriz, gordetzaile eta konserbatzaileak ziren eta oinar oinarritzkoak ziren bi ezaugarri hauk. Oinarri berriak dituen gizarte batekin aurkitzen gara; mogimendua, aldakuntza azkarra eta etengabekoak izango dira jaiotzen ari den gizarte honen ardatzak.

Mende honen erdi aldean mendebal gizarteak arazo berri batzuk aurkitzen ditu:-Zientzi eta teknikaren aurrerapen sinisgaitzak planteatutakoak; itxaropen onekoak.

- Aurrerapen hauek sortutako egoera soziala; proletargoaren sorrera eta horrekin batera, gizarte mailan ematen ziren harremanen aldakuntza.

Bere lehengo baloreak aldatzerakoan, eta hain azkar gainera, krisis sentimentu bat zabaltzen da, artearen zentzua eta artea bera krisis honetan sartzen da eta gizartearekin batera aldatu behar izango du.

2.- Erromantizismotik Impresionismora

Konserbatzaile pentsamoldeak ez du aldaketa hau onartzen eta ukatu egiten du. Ukazio honen aurka, eta erantzun bat eman nahian erromantizismoa zortzen da. Erromantizismo hau, sentiberatasun eta energiaren zabalakuntzaren zale neurrigabekoa dugu. Berak ulertzen eta menderatzen ez duen munduan jaiotako gizonak bere barruko amets munduan bizi behar du beste irtenbiderik ez bait zaio gelditzen. Erromantikoak mundu honetan biziko dira.

Baina errealtateak indar handia daduka eta irudimenak moldatuta agertzen zitzaigun mende hau, azkenean errealtateak mugatutakoa azalduko zaigu.

1.830.go indibidualismo erromantikotik 1.850.go errealtatez josirik positibismoa, natura, eta berak sortzen dituen harremanak, lokarria izango dugu. Paisajearen tratamendu berri batekin aurkitzen gara, bi joera eta bi ikuspegi hauetatik batera egindako paisaje tratamendua. Ezin dugu ondo bereiztu zer den egileak ikusten duena eta zer sentitzen duena. Hau Huyghek dionez paisaje lirikoa dugu.

Garai honetan ere bai teknika aurrerapenekin batera, produzitzeko era berriekin, hiri handia azaltzen da, hiria bere gaurko zentzuan, sortzen ari den gizarte era bat hiritarra izango dugu, berekin aldatzen ari den artea ere, hiritarra izango dugu; bai erabiltzen dituen gaiagaitik, baita ere egiten duen egilea hiritarra eta kultur hiritarduna dugulako.

Natura ikusteko modu honek, bere azken muturreraino eramanda, inpresionismorantz hurbiltzen gaitu.

3.- Inpresionismoa zer den

Hasieran, inpresionismoa, errealismoaren arlo bat dela pentsatu dezakegu, zientifismo baten bidez azken punturaino eramanda, baina kontuan izan behar dugu inpresionistentzako, zentzuzkoa dela, kanpotik, mundutik, gure kanpoko errealtatetik datorrigun egiazko gauza bakarra. Inpresionistek hau onartzean errealtatea gaineratzen dute, azkenean forma ukatu eta baztertu egiten baitute

Inpresionismoak errealtatearen azterketa egiten du, errealtatea sentidoek jasotako datoez osatzen da.

Eskola berri honek mundu sentiberaren irudirik zientifikarena lortuko du, baina begiaren testimonio zehatza berregin nahian, pinturak natura ez duela kopiatzeko iruditzen zaio ikusleari.

Inpresionismoarekin desmaterializazio bidean abiatzen da pintura.

Kontuan izan behar dugu nolako hauskera garrantzitsua izan zen inpresionismoa; orain arte, artearen historian zehar bi joera nagusi ta orokorrak aurkitzen dugu. Joera klasikoa eta joera erromantikoa, bi joera hauetan beste guztien mamia aurki dezakegu. Gizonak, errealtatearen aurrean eta mundua ezagutzeko, metodologia batzuk erabiltzen ditu; Bi joera hauetatik baliatuz, gizonak orain arte aurre egiten zion errealtateari, beti hauetako joera batez jantzirik aztertzen zuen eta azterketa hori egiteko joerak ematen zizkion arau metodologikoak erabiltzen zituen.

Joera orokor hauekin puskatu zuen mogimendua, inpresionismoa izan zen, azterketa orokor eta benetako bat egin nahian. Haukera honekin pintura eta artea gaurko bide berrietan sartzen da.

4.- Historia

Inpresionismoa, Parisen 1.860 eta 1.870 artean sortzen da. Talde hortako lankideak hauek dira: Monet, Renoir, Degas, Cezanne, Pissarro eta Sysley. Manet, besteak baino zaharragoa, hasieran errealista; 1.870.tik aurrera, gero eta gehiago hurbiltzen zen inpresionismoruntz, argilun eta tarteko tonoa utzirik koadroan dauden harreman guztiak kromatikoak bihurtzen. Manet bihurtuko da taldearen gidaria, pintore guztiak hasten dira regularki biltzen Cafe Guerbois delakoan.

1.860.etik 1.870.arte, talde honen lana kontradizio bizian dago. Manetek bere bidea argiago ikusten du eta aurrera jarraitzen du; besteak, bitartean, oraindik bila dabilta, Pissarro errealismoa utzi nahian, Renoir bide garbi bat jarraitu gabe e.a., Manet bakarrik dago nolabait finkatua.

1.870.go gudaz gero, taldea berriz biltzerakoan, gauzak asko aldatu dira; lana aurreratua dago, probak, tanteoak bukatu dira eta talde sentimentua, alkartasun sentimentua gero ta sendoagoa da. Orain talde bezala agertzen dira.

Erakusketa ofizialekin puskatzen dute eta talde erakusketa bat antolatzen dute 1.874.urtean; porrot egin zuen erakusketak eta inork ere ez zuen kontutan hartu. Dena dela, bi urte beranduago beste bat antolatzen dute, eta 1.877. beste bat. Azkeneko hau, dirudinez, nahiz eta ikusleak eta kritikalariei beren kontra jarri zorientzua goa izan omen zen. Inpresionismo zaleen taldea zabaltzen ari zen eta gero ta laguntza gehiago izan zuten.

1.879.ean laugarren erakusketa izan zen eta benetako interesagaitik, edo ta fenomeno berri hori ezagutzeagatik, 15.400 ikusle joan ziren; ordutik aurrera inpresionisten erakusketak "acontecimiento parisino" bihurtzen dira. Arrakastarekin batera talde erakusketak bukatzen dira.

1.887-90 inpresionismoa onartzen dela esan dezakegu.

1.890-1900 arrakasta ekonomikarekin mogimendu honi buruzko eztabaidak sortzen dira, bere zentzua, bere ondorioak e.a. orain arte irauten duten eztabaidak.

Inpresionistek talde bezela egitarau sakon eta finaturik ez zuten; baina bere bileretan puntu teoriko batzuk argitu zituzten: - arte akademiko eta ofizialari zioten gorrotoa.

-errealista orientapena

-gaiaren garrantzia ukatzen dute; gaia, aitzakia besterik ez da.

-kalean lan egitea, lantokien ohiturarekin puskatzea, margo guztien arteko harremanak aztertzea.

Oinarri hau kontutan harturik, errealitateari buruz lan eta ikerketa sakona egin nahi dute.

Margo argiak, argi naturala, eta formarekiko beste elementuak duten harremana oinarriak izango dira pintore berri hauentzat; hau dena bere izakera berezietan nahastuta.

Hasieran Monet eta Pissarro-k beltza baztertu zuten haier koadrotik, naturan beltzik ez baitago, baina azkar kontutan hartu zuten naturan margorik ez dagoela, margo guztiak argiaren funtsean daudela eta formaren aldaketak ere bai argiaren funtsean daudela; alde batetik, margo/argiaren arteko harremanen arauera eta beste aldetik, haizearen kalitate eta densitatearen arauera ere bai; hau onartzen ba dugu bi errealitate bakarrik gelditzen zaizkigu aztertzeko, haizea eta argia. Bi hauek moldatzen dituzte guregan ailegatzen diren zentzazio guztiak.

5. Bibliografía: ARGAN, El arte moderno. Edit. Fernando Torres. 1975
- HAUSER, Historia social de la literatura y el arte. Edit. Guadarrama. 1964
- HUYGHE, El arte y el hombre. Edit, Planeta 1970
- FRANCASTEL, Historia de la pintura francesa. Alianza Editorial, 238, Madrid, 1.970

HIZTEGIA

Arte- Arte
Argilun -- Claroscuro
Aurrerakuntza -- progreso
Burjesia ---- Burguesia
Energia --- Energia
Erakusketa --- exposición
Erromantizismoa --- romanticismo
Gordetzaila ---- Conservador
Hauskera ---- ruptura
Ikuslegoa ---- publico
Impresionismoa --- Impresionismo
Indibidualismoa ---- Individualismo
Konserbatzailea--- Conservador
Soziala ---- Social
Margo --- Color
Tarteko tonoa ---- Tonos intermedios
Zentzazio ----- Sensacion

INPRESIONISMOA / PINTURA BERRIA

1.- Mogimenduaren historia.

- . 1.1. XVIII mendea.
- . 1.2. 1859. Manet.
- . 1.3. 1870. Monet eta Pissarro
- . 1.4. 1862. Sisley, Bazille eta Renoir.
- . 1.5. Taldeko borrokak.

2.- Inpresionismoa zer da ?.

- 2.1. Planteamenduak.

3.- Inpresionismoa Euskal Herrian

- 3.1. Guiard eta Regoyos.

4.- Bibliografia.

PRESTATZAILE: Kortadi Edorta.

INPRESIONISMOA / PINTURA BERRIA

1.- Mogimenduaren historia.

1.1.- XVIII. mendean, artistik fenomenoaren aurrean, zera egiaztu daiteke:

- 1) Publiko gehiena berria zela.
- 2) gizarteko elementu eragilenez osaturikakoa ia soilki.

Iraultza ondoren : 1) burgesi ttipi eta erdi-burgesiaren olatualdi bat sortzea da.

- 2) arteari buruz desezaguntasun handikoa, baina ezagutzeko gogotsua.

Beraz, Pierre Francastel-ek dioen bezala, problemarik garrantzitsuena arte obraren irakurgarritasuna izanen da. XIX. mendean artisten artean eboluzio argi bat nabartzen da: lerroaren berregintzatik, zeinuz errepresentatzera igarotzen dira. Agertzen den artistik pertsonalitate bakoitzak irtenbide berri bat dakar, idazkera desberdin bat aportatzen du. Ondorio bezala, publikoak duen irakur zailtasuna.

"Tartouillade" (mamarrachada), eragabe, arduragabe, margotzen ez jakitea eta horrelako salaketak hasten dira. "Pochade" (bosquejo/zirriborroa), tinta zirriborro eta tanke-rako hitzak mende guzian zehar erasoaldi bezala erabiliak izanen dira.

1859/ 1.2.- Artista baliotsu gazteak naiz Salandietara (Salón) joaten jarraitu, arbuaiatuak izaten jarraitzen dute: 1859. urtean adibidez Manet pintura sailak osoki arbuaiatuak gertatu ziren. Artisten protesta medio izan zelarik, azkenik, Museoak, Salandiaren alboan, onartuak ez ziren obrak aurkezteko, eta publikoak, berez, epaitu zezan, beste gela bat hedatzeko agindua jaso zuten.

Hamabost egun zabalarik, nahiz eta kritika bi zatitan erdi-bitu, populu eskandaloa izugarria izan zen, pintura mota hau arbuaiatuz. Borroka Manet-en izenaren inguruan bildu zen. Polemika honetatik, noski, bere izena indarturik atera zen.

Théré kritikalaririk zioenez: 1) gaiari buruz "gusto" aurrerakoia".

2) egiturari buruz "konposaketa absurdoa".

3) koloreari buruz "kolore eskandalosoegia".

"Le déjeuner sur l'herbe" aztertu.

Manet Salandietan sartu arren, eztabaidak jarraitu zuten.

1870/ 1.3.- 1870 baino lehenagoko urtetan, Manet ez zen, "inpresionista" pintura egiten zuen bakarra. Claude Monet, Camille Pissarro eta beste zenbait joeratako pintorek ere aide librean pintatzea gogozko zuten. Eta ez gainera tailerrean gero bukatuko zituzten zirriborroak bakarrik, baizik obra osoak. Pintore hauek Boudin-en inguruan Normandiako itsasertzak (L'Havre eta Houffleur) pintatzen zituzten. Artearen begiztaketatik, eta ez naturatik, abiatuko da pintura argiaruntzako eboluzioa: Monet-entzako Manet-en argiaren gaineko argiaren begiztaketak agerkunde izugarri bat suposatu zuen. Belanauldi berriko artistek, bakoitzak bere erara lan egiteko oinarri bezala hartuko dituzten pilareak hauk izanen dira: kolore argia, aide libreko lekutako argia, eta formarengan dituzten oihartzunak.

1862/ 1.4.- 1862 urte inguruan Alfred Sisley, Frederiz Bazille eta Auguste Renoir, Manet-en inguruan bildurik aurkitzen dira. Denek, Manet-en eskandaloak miresten dituzte. Artista gazte hauk, eta artista gazte asko, kritikolari eta zenbait literato beraien inguruan, Avenida Clichy-ko Guerbois kafetegian elkartzan ziren. Idea berriak sortu eta arte berri bat erakitzeke borondatea finkatzen zen. Une hoietan guztiak, gerora

izango zirenaren adierazgarri bezala, zenbait obra agertu zituzten: Renoir-en paisaiak, Degas-en erretratuak, Cezanne-n bodegoiak... Pissarro eta Monet-ek ere beren lehenengo lainez inguraturikako etxeak ere Londresen eginak dituzte. Sisley-ek, oraindik lurrintsuagoa zenez, bide honetan aurre hartuko die. Guzi hauek talde bat osatzen dutela eta helburu berdinak defendatzeko dituztela oharturik aurkitzen dira.

2874/ Beraien "marchante" zen Durand-Ruel-ek kuadro bat ere saldu ezin zuelarik, beraiek, 30 bat artista, pintore, eskultore, eta grabatzaileen "Akziozko elkarte" bat sortu zuten. Boulevard des Capucines-eko 35ean, Nadar argazkilaria zuen salandi batetan erakusketa bat antolatzea lortuz. Han agertu zituen Monet-ek "Le Boulevard des Capucines", "Bateaux sortant du Port du Havre" eta gero talde guztiari Inpresionista izena erantsiko zion "Impresion, soleil levant" famatua.

Beren obrak - "amoregaitzen taldekoenak" deituak - kolore desohituagaitik eta formaren tratamendu bereziagatik, publikorekin elkar jo zuten. Horrela, hasiera batean, Leroy del Charivari kazetelariak irain bezala erabili zuen Inpresionismo izena sortu zen.

Pixkanaka, naiz eta publikoaren irainak jarraitu, beraien fama zabaltzen joan zen kazetelari eta kritikalarien itzalean. Cezanne, artistarik kritikatuena eta arbuiatuena izaten jarraitu zuen. Besteen salmentak ontzen hasi ziren. Oso poliki baina sendoki, talde erakusketen bukaera ekarriko zuen arrakasta iritsi zenean.

1882/ 1.5.- Taldeko zenbait partaideen arteko borroka eta etsaitasunak sortu ziren.

- . Degas-ek, Renoir eta Sisley-ekin ez zuen erakusketarik egin nahi.
- . Monet-ek, Gaugin-ekiko etsaikeria zuen.

. Redon, Seurat eta Signae, Monet, Renoir eta
besteen lekuaz jabetu ziren.

1887-90 urte inguruan Inpresionismoa onartua izan zela
esan dezakegu. 1890 eta 1900 urte artean komertzio
arrakasta medio zelarik, egun oraindik amaitu ez den
interpretazio eta mugimenduaren zentzuari dagokion
eztabaiden aroa ireki zen.

2f- Inpresionismoa zer da?

2.1.- Eskola bat ?. Artearen historian zehar leku bat
duen mugimendu bat?. Artista batzuen moda iraunkaitz
bat da?. Pintatzeko "modu" berri bat?. Gizartearen
eboluzioari dagokion ikuspegi aldaketa bat?.

Arazo honen kakoa azter dezagun.

"Aide libretik" abiatuak, Pissarro eta Monet-ek,
naturan agertzen ez delako, kolore beltza bazterratzen
dute. Monet-ek naturan kolore batere ez dela,
guztiak argiaren baitan daudela esanen du - aro hartako
zientzia: Cheurel-en koloreak, Rood-en argi teoria,
Helmholtz-en experimentu berriak. Formekin ere berdin
gertatuko da. Argiaren efektuak lortzea da garrantzitsua:
uretako erreflexuak, irudietako mantxak.

Monet eta Pissarro-k erreialismo berri bat erreklamatzeko
zuten - Zola-k bere eleberrietan agertzen zuena, eta
beraiek bizi zutena, errealitate hura berria zen bezala.
Artistek zenbait sailetan, "La Gare Sain-Lazare", "Cathedrale
de Rouen", "Nymphes", bereganatzen saiatzen diren
errealitate aldatzailea, egun ere oraindik, artistek era-
biltzen dute zientifik-teorik aztarren hau, sailetan lan
eginez.

Sourat izanen da bere tomu zatiketen bidez artea razionali-
zatzen saiatuko dena -lege fisikoak eta zientifikoak:
dibisionismoa.

Teori eta zientifik analisi hauk guztiak, noski, bakoitzak bere modura egin zituzten, ia betidanik ondoren askatasun osoz lan egitera itzuliz.

Renoir-ek, emakumea, jantzirik edo bilutsirik, pintatzeko bere era bereziari hedatuko dizkio teori berri hauk. Sisley, Monet eta Pissarroren bidetik piktorik gaien berrikuntza etorriko da eta beren arteko adiskidetasuna kontuan izanik, argia, formak eta gaien deskubrimentuan bakoitzaren partaidetasuna finkatzea zaila egiten zaigu. Hipotesi mailan, hutsik, mugi dezakegu.

1885/ 3. Inpresionismoa Euskal Herrian

3.1. 1885 urte inguruan euskal artistak Pariserantz hasi ^{begira} ziren. Adolfo Guiard izan zen Parisko aideak ekarri zituen eta Dario de Regoyos Bruselaskoak. Biak, historik gai adoretzu eta hotzak alde batera utziz gero, pintura barnerakoiago eta pertsonalago bat egiten hasiko dira. Flores Kaperoixipik dioen bezala "La familia del anarquista el día de la ejecución" pintatu beharrean, formato txikietan, lirioiak, gizon bat eseririk, paisaia bat tren bat ageri dela edo arrantzale pintatzen hasi ziren.

Ia XX.mendea iristean, herrialdeetako talde berriak sortzen hasiko dira, Madrid, Barcelona, Valencia eta Bilbo beraien zentzu direlarik. Katalunyarrak eta euskaldunak Madriltik kanpo eta leihaketatik ere urrun jardun zuten. Paris aldera gehiago begiratu zuten, Madrilek beren birrikak ezin baitzuen ase. Pintura Modernoaren benetako seaska Parisa zen noski eta aro hartako euskaldun pintore asko aruntz joan ziren beren ikasketak osatzeko.

Dario de Regoyos izanen da lanik gogorrenakeginen dituen Inpresionismoaren kimuak argitaratze arren. Irun, Donostia,

Durango, Errenderi, Hareeta eta Bilbo izan ziren Regoyos-en eszenatoki gogozkoenak. Regoyos-ek euskal paisaiari bere aurkipen zoragarriak, argia eta kolorea, eskeini zizkion. Bilbotar zen Adolfo Guiard izanena da, espektroko koloreak beherati eta argituko dituen eta osagarritzko koloreak erabiliko dituen Eduardo Manet-en miresle eta Degas-en ikasle zelarik Parisko inpresionista giroan asko mogitu zen.

Inoiz ez zuen Inpresionismoa, guztiz onartu, baizik bere erara, pertsonaien inguruan eta azpialdea (Siluetak) margotuak, egokitu zion.

Llano Gorostizak esan zuen bezala, egin da euskal plastikaren arloan, Inpresionismoa, balore ekile bat izatea iritsi zezakeala, bainan inpresionista hutsak falta zirela ez da egi txikiagoa.

Mendearen bukaera izanena da gazteiztar abokatua zen Fernando Amara inpresionismoren bidetatik abiatuko denean. Bere paisaiak inpresionist arte barruan osoki kokatu ditzakegu. Jesus Martinez Basiano, nafarra, Durangon, Dario de Regoyos pintatzen ikusirik, honen bidetik abiatuko da ere.

4. Bibliografía

- . ARGAN, Gulio. El arte moderno, Fernando Torres. 1965
Madrid.
- . HUYGHE, René. El arte y el hombre. Planeta. Barcelona.
1970.
- . FRANCASTEL, Pierre. Historia de la Pintura Francesa.
Alianza edit. Madrid. 1970.
- . LLANO GOROSTIZA, Manuel. Pintura Vasca. Grijalbo.
Bilbao. 1968.
- . KORTADI, Edorta. Pintura Vasca, en Cultura Vasca II.
Erein. San Sebastian. 1977.

BIBLIOGRAFI LABURPENA

PRESTATZAILE: Garmendia Koro

HAUSER, A., Historia social de la literatura y el arte,
edit. Guadarrama. 1964

Hauserek esaten duenez, inpresionismoa gizarte bildurti eta aldakor batetan sortzen da. Garai honetan, gizarte horrek ezagutuko ditu aldaketa handiak eta bere betiko baloreak, gauzak epaitzeko arauak eta bizia ulertzeko mugak krisis zorrotz batetan sartuko dira. Kapitalismoa patxada ederrean zabaltzen dihoa, baina azal paketsu honenpean langileriaren antolaketa aurrera dihoa eta "progreso" berri honek ekarritako betiko pakea eta aurrerapena kolokan agertzen da, gizarte hau, hasiera batetan hain zihurra, gizarte bildurti eta insegura agertzen zaigu.

Krisis giro horrek, joera mistika eta idealista berriz piztuten ditu giroan dagoen pesimismoaren kontra, eta momento honetan inpresionismoa, errealismoarekin puskatuko du eta erromantizismoa berri bat bihurtuko da.

Krisis sentimentu hau izan diteke garai hartako aurrerapen teknikoaren pizgarria, teknika aldetik aldaketak izugarritzkoak izan ziren eta gainera oso azkarrak eta aldaketa orokor honetan gustoaren kriterioak aldatzen dira ere bai; belozidatea, mogimendua, dinamismoa balore garrantzitsuak bihurtuko dira. Belozidatearen beharra eta sentimentua, aldaketaren zentsua inpresionismoan aurkituko dute bere adierazpidea.

Teknikaren aurrerapenarekin batera "hiri handi"en sorrera datorkigu, (hiri handia gaurko zentsuan, ez bere neurriagatik), inpresionismoa hirian jaioko da eta hantxe kokatzen da erabat; hiritarra da, hiria paisaje bezela eta pintura gaia bezala rebindikatzen du, gainera inpresionismoak ematen digun bizimoduari buruzko iritzia eta bere jarrera ta erantzuna gauzen aurrean, garaiko gizon tekniko eta urduaren erantzuna da.

Gauzen mogimendu etengabekoa eta iraunkorra aitortzen du inpresionismoak, (ez gara inoiz ere ez erreka berdinean murgiltzen), eta bere teknikaren bidez hauxe adierazi nahi digu: dena "devenir" mogimendu dela.

Inpresionismoa analisis batetik sortzen da, gauza "sentidoen" datoa utsiz egiten du, gauzen zatiak agertzen dizkigu eta gure esperientziaren bidez nahi gabe inkonszienteki guk gauza hori bukatzen dugu.

Inpresionismoa baiño lehenago, gauzak agertzen ziren zeinuen bidez orain gauzek beren zatien bidez agertzen dizkigute.

Inpresionismoa zeinu horiek ugaritu eta zabaldu beharrean laburtu eta mugatzen ditu. Zeinu laburpen hauek arlo ezberdinetan egiten dira;

- La reducción de los elementos de la representación a la visualidad y la eliminación de todo lo que no sea de naturaleza óptica o sea traducible a la óptica.

-Gaiaren elementu literarioak baztertzen ditu, pintura reducida a sus propios medios, horregaitik paisajea hainbeste garrantzia du eta paisaje ez diren gaiak, paisaje bezalakoak tratatzen ditu.

-Gai baten tratamendua tonoen arauera dihoa eta ez gaia beraren arauera.

Inpresionismoak ez du errealitatea superfizie bide-mensional batetan bihurtzen bakarrik, baizik eta bidimensionalidade hau perfil gabeko (mugagabeko) mantxa sistema bat bihurtzen du. Dibujoa ukatzen du, eta era honez mogimendu eta dinamismoan irabazten duena argitasunean galtzen du.

Inpresionisten lehendabiziko talde erakusketa 1.874 egiten da, baina inpresionismoaren historia 20 bat urte lehenago asten da eta zortzigarren talde erakusketarekin bukatzen da 1.886.ean.

ARGAN, J., El Arte moderno, vol.1, edit. Fernando Torres,
1875.

INPRESIONISMOA

Artearen historian zehar izan diren joera guztiak, bi taldetan banatu dezakegu; joera klasikoak eta joera romantikoak. Bi joera nagusi hauen helburua hauxe izan da: artista eta errealitatearen arteko harremanak nolabait mugatu, bideratu. Bi joera hauk jarraituz inoiz ere ez zen artista errealitatearen aurrean zuzenki jartzen, inoiz ere ez zion aurpegia ematen, beti joera nagusi hauetako batez jantzita zihuan eta joerak zedukan arau konkretuaz aurre egiten zion.

Coubert eta errealismoak asten da sistema hau gainerratu asmoz, errealitateari aurpegia eman nahian.

Benetan, agertzen den arazoa hau zen: errealitateari aurre egin bi joera nagusi, betiko, onartu, konsakratutako batetan oinarritu gabe.

Joera general hauekin puskatu zuen lehengo mogimendua inpresionismoa izan zen eta eraberean arte modernoaren bidea ireki zigun. Garai honetan pintura askatzen da eta bere muga eta bide konkretuetatik ateratzen da.

Inpresionismoa, Parisen 1860 eta 1.870 artean sortzen da. Talde honetako lankideak hauek dira: Monet, Renoir, Degas, Cezanne, Pizarro eta Gislely. Manet, besteak baino zaharragoa, realista joera zalea 1.870 tik aurrera gero ta gehiago hurbiltzen zen inpresionismorantz, (Clarooscuro) argilun eta erdiko tonok (tonos intermedios) utzirik koarduan dauden hartueman guztiak kromatiko harreman bihurtuz.

Egitarau sakon eta finkaturik ez zuten, baina beren bileretan puntu teoriko batzuk argitu zituzten: - arte akademikoa eta ofizialaren aurkako gorrotoa

- Errealista Orientapena

- Gaiaren garrantzia ukatzen dute. Gaia aitzakia besterik ez da.

- Kalean lan egitea, lantokiarentalerraren ohitura-rekin puskatzen dute. Margo guztien arteko harremanak aztertzea.

Honekin lan eta ikerketa sakon, zuzen eta experimental bat errealitateari buruz egin nahi dute.

Bere helburua hau da. "demostrar que la experiencia de la realidad que se lleva a cabo con la pintura es una experiencia plena y legítima que no puede ser sustituida por experiencias realizadas de otra manera". "Pinturaren bidez errealitate egiten den esperientzia, orokor eta legezkoa (bidezkoa) dela eta beste era batez egindako esperientziak bere orde ezin dugula onartu"

Garai bateko pintura, bere teknika, garrantzizkotzat hartzen dituen gauzak e.a. aro hartako kultural sistema (epistema) barruan dago, eta inpresionismoaren garaia, garai industrial bat da. Garai zientifiko batetan, artea nahi eta nahi ez, zientifikoa izan behar denik ez dute esaten, baina zein izan deiteken artearen funtzio eta bere betebeharra gizarte zientifiko batetan galdetzen dute, eta nola artearen teknika aldatu diteken beste teknika guztien mailara ailegatzeko.

(Keska hauen paraleloa arkitektoen borrokan ikusi dezakegu, arkitekto konstruktore/ arquitecto decorador).

FRANCASTEL, P. Historia de la pintura francesa, Alianza editorial, 238, Madrid, 1970

Frantziako iraultza ta gero, arte publikoa berri batekin aurkitzen da, burgesi erdiko eta txikia, publiko honentzako artea mundu berri bat da ez dute giro hori ezagutzen, ez dute ere ez inongo ohiturarik artea ikusteko, baina beste aldetik arte mundua ezagutza eta hortaz jabetu nahi dute, publiko honentzako legibildade arazoa handiena da.

XIX, mendean korrente general bat aurkitzen dugu, linearen bidez egindako errepresentaziotik, zeinuaren bidez egindako errepresentazioara, honela margolari bakoitzak hizkuntza berri bat sortzen du, gainera orain arte erabili ez diren elementuz, linea erabili gabe.

Ikuslearentzat oso zaïla egiten zaio ulertzen ez duen gauza bat onartzea, eta egilearen kontra jartzen da, mantxa batzuk besterik ez baitutu ikusten, eta hizkuntza berri hori ulertzeko gauza izan arte ez du onartuko.

Batzuen iritxiz, inpresionisten pintura argia da, baina Francastelek dionez hori ez da egia, garai bateko Manet-en koadroak nahiz eta kalean egindakoak izan ez dira bat ere ez argiak, artistikaz arrazoia izan zen eragina pintura gerta argiagoa egiteko. "las amplias superficies claras con las que armonizaban las anchas superficies sombrías estaban basadas en una armonía de claro sobre claro".

Kolore argia, argi naturala, eta formarekiko duten ondorioak, oinarriak izango dira pintore berrientzat, hori dena bakoitzaren izakera bereziarekin nahastuta.

1.862. urtean gutxi gora behera Moneten inguruan aurkitzen ditugu hiru gazte, Sisley, Bazille eta Renoir; Monet bestek baino zaharragoa zen eta bere pintura ezgunagoa. (ezagunagoa pintore eskandaloso bat zelako garaian, eta inon ere ez zutelako onartzen). Beste aldetik, Academi Suissen, Cezanne Pissarrokin harremanetan sartzen da. Gazte hauentzat Monet ardatza bihurtuko da. Eta hasten dira regularki biltzen "Cafe Guerbois" delakoan.

1.860 tik 1.870 arte talde honen lana kontradizio bizian dago., Manetek esperientzi gehiagokin bere bidea argiago ikusten du eta hori jarraitzen du. Gazteak bitartean oraindik bila dabilta, Pissarro errerealismoa usteko nahian, Renoir joera desberdin asko jarraituz e.a. Manet bakarrik dago nolabait finkatua.

1.870.go guda ta gero, taldea berriz biltzerakoan, gauzak asko aldatu dira, lana aurreratua dago, probak, tanteoak, bukatu dira eta talde sentimentua, alkartasun sentimentua gero ta sendoagoa da. Orain talde bezala agertzen dira, helburu berdinekin eta Salon ofizialekin puskatzen dute erabat. Talde erakusketa bat antolatzen dute 1.874.urtean; izugarrizko frakasoa izan zen; inork ere ez zuen seriozki hartu. (erakusketa honetan inpresionismoa izena ematen diete). Nahiz eta publiko eta kritikalarien karrera hain txarra izan, bi urte beranduago beste erakusketa bat antolatzen dute eta 1.877an beste bat. Dirudinez, azkeneko hau nahiz eta publiko eta kritikalariai haien kontra jarri, zoriontzuagoa izan omen zen, inpresionisten zaleen taldea zabaltzen ari zen eta gero ta defensore gehiago zuten.

1.879.ean laugarren erakusketa izan zen, eta benetako interesagaitik edo gauza berri ospetsu hori ezagutu minagaitik 15.400 ikusle joan ziren eta ordutik aurrera inpresionisten erakusketak "Acontecimiento parisiense" bihurtzen dira. Arrakastarekin batera talde erakusketak bukatzen dira.

1.887-1.890 inpresionismoa onartzen dela esan dezakegu.

1.890-1.900 komerzial arrastakarekin, mogimendu honi buruzko eztabaidak sortzen dira, bere zentsua, bere ondorioak e.a. orain arte irauten duten eztabaidak.

Monet eta Pissarro errerealismoa egin nahi zuten "aire libre"tik abiatuz, horregaitik beltza baztertu zuten naturan beltzarik ez baitago, baina azkar kontuan hartu zuten ere bai naturan margorik ez dagoala, margo guztiak argiaren funtsean direla eta formaren aldaketak ere bai horren funtsean, alde batetik margo/argiaren harremanen arauera, eta bestetik haizearen kalitate eta dentsitatearen arauera, ere bai; orduan bi errealtate bakarrak gelditzen dira aztertzeko, argia eta haizea. Eta teori hau frogatu nahian, agertzen digute nola gai berdinekin argi aldaketaren bidez koadro desberdiñak lortzen ditugun.

HUYGHE, El arte y el hombre, edit. Planeta. 1970.

1.848 iraultzarekin izakera eta bizimodu baten amaia datorkigu; garai honetan mundu berri baten ateak irekiko dituen energia aldaketak, gizarte berri bat martxan jar-tzen du. Era berean filosofi eta idea munduan aldaketa biziak ematen dira.

Aurrerakuntza, doktrina eta gizarte honen ardatza bezala, agertzen zaigu, etengabeko mogimenduan eta etor-kizunari begira dagoen gizartea dugu hau; aintzinako gizarteak berriz gordetzaille eta konserbatzaille ziren eta oinarri/oinarrizkoak zituzten bi ezaugarri hauk. Gizonen beharrak eta nahiak moldatutako mundu bat sortzen ari da.

Mende honen erdi aldian, mendebal gizartea arazo berri batzuen aurrean aurkitzen da: - Teknika eta Zientzien aurrerapen sinisgaitzak planteiatutakoak,- eta aurrerapen horiek moldatutako egoera sozial larriak planteiatzen zuena.

Konserbatzaille pentsamoldeak, egoera berria ukatzen du. Horren aurka Romantizismoa sortzen da erantzun bat eman nahian; sensibilitate eta energiaren zabalkuntzaren zaletasun neurrigabekoa dugu romantizismo hau.

Berak menderatzen ez duen munduan jaiotzen den gi-zonak, bere barruko amets munduan bizi behar du. Baina errealtatearen indarra handia da eta XIX garren mendean errealtatea nagusituko da.

1.830 indibidualismo romantikotik, 1.850 erreali-tatez josiriko positibismora pauso batzuk daude; paisa-jea eta naturarekiko harremana bi joera hauen tartean iokarria izango dira.

Turner eta Martin inglesek bi joera hauen tarteko tratamendua ematen diote paisajeri, paisaje lirikoa, ezin dugu ondo bereiztu zer den egileak ikusten duena eta zer sentitzen duena; bi joera romantiko eta errealtata nahasten dira, nolabait batu egiten dira ikuspegi orokor bat emateko. Natura ikusteko modu hõiek bere azken muturreraino eramanda inpresionismoara eramango gaitu.

Hasieran inpresionismoa errealismoaren arlo bat dela pentsatu dezakegu bere muturreraino eramanda zientifismoaren bidez. Baina zentzazioa kanpotik datorrigun benetako gauza bakarra bezala onartzen ba_dugu azkenean forma ukatzera eta baztertzer ailegatzen gara.

Eskola berria mundu sentiberaren irudirik zientifikoarena lortuko du baina begiaren testimonio zehatz beregin nahi izateko, pinturak natura gehiago ez zuela kopiatzen itxura ematen zion ikusleari. Zeren eta gauzen errepresentaziotik, ikusleen begitan mamia bezela agertzen zena (gaia eta forma) kanporatzen zuten. Desmaterializazioa bide batetan abiatzen da inpresionismoa eta berarekin gaurko pintura.

Desmaterializazio joera hau ez zen bakarrik arte arloan ematen; zientzi arloan ere bai gaia, materia, urte horietan urtzen da, desegiten da benetako errealtate bakarrari, energiari lekua utzirik.